

Situación País Vasco Zertan den Euskadi

2022

Mezu nagusiak



2021eko BPGa

BBVA Research-en kalkuluen arabera, Euskadiko BPGa % 4,7 hazi zen 2021ean. Salgaien esportazioen, industria-jardueraren, turismoaren eta kontsumoaren hobekuntzak bultzatu zuen susperraldia.



Eskariaren joerak

Kontsumoaren, turismoaren eta inbertsio publikoaren portaera estatuan baino ahulagoa izan da, eta bizitokien merkatuaren bultzadak zertxobait konpentsatu du. Ekipamendu-inbertsioen, salgaien esportazioen eta industria-jardueraren susperraldia urrats bat atzerago doaz, zalantzen, eskaintza-arazoen, nazioarteko merkataritzako botila-lepoaren eta energiaren eta lehengaien arazoen ondorioz.



Hazkundera, % 5 ingurukoa izango da

2022an BPGaren hazkundera % 5,3raino bizkortuko dela aurreikusten da, eta 2023an, berriz, % 4,5era arte irits daitekeela. Pandemia kontrolatzeak, familiek bildutako aurrezkia erabiltzeak, NGEU funtsen bultzadak eta erabili gabeko produkzio-gaitasun handiak konpentsatuko lituzkete botila-lepoaren eta energiaren garestitzearen efektuak.




Arriskuak

Epe laburrerako joera goranzkoa izango da pandemiak jardueran eragin txikiagoa duela berresten bada. Inflazio handiarekin, banku zentralen erantzunekin eta geopolitikarekin erlacionatutako arriskuak garrantzia hartzen hasi dira. Gainera, beharrezkoa da NGEU programako funtsak lehenbailehen ezartzea. Joera, epe ertainera, datozen hilabeteetan hartzen diren neurrien arabera izango da.

01

Situación País Vasco Zertan den Euskadi

Hazkundeak handia izaten jarraituko du 2022-2023 biurtekoan




2021ean hazkundera bizkortu egin zen

Kontsumoaren hazkunde txikiagoa, Espainiarekin alderatutako hazkuntza-diferentziala ulertzeko gakoa

EUSKADI ETA ESPAINIA: ABAGUNEAREN ADIERAZLEAK

(2021EKO AZKEN HILABETE ERABILGARRIRA ARTE METATUTAKOA, % A/U)



*BBVAk jaulkitako txartelen gastu presentziala gehi bezero ez direnek BBVA STn egindako gastua.

**BBVAk jaulkitako txartelen gastu presentziala gehi atzerriko erakundeen txartelek BBVA STn egindako gastua

Iturria: BBVA Research iturri nazionalen eta BBVAren datuetan oinarrituta.


Salgaien esportazioek, industria-jarduerak eta turismoak bultzatu zuten euskal ekonomiaren hazkundera 2021ean. Txartelarekin egindako gastu presentziala eta eskualdeko gastu turistikoa asko indartu ziren, Espainian baino gutxiago indartu zen arren.

2021ean hazkundera bizkortu egin zen

Afiliazioak krisiaren aurreko maila berreskuratu zuen, nolabaiteko heterogeneotasunarekin

EUSKADI: AFILIAZIOAREN BILAKAERA ESKUALDE NAGUSIETAN

(19-4H=100, CVEC)




- Eskualdeko afiliazioa, ia-ia, krisi aurreko mailara iritsi zen, susperraldia hain dinamikoa izan ez bazen ere Espainia osoarekin konparatuta.
- Bilbo Handiko eta Donostialdeko enplegu-hobekuntza nabarmentzen da, baina batez ere Arabako Lautadakoa. Bertan jo zuen gogorren krisiak, industria-jarduera handia duten beste eskualde batzuekin batera.
- Gainerako eskualdeetako enplegua ez da hain ongi suspertzen ari, eta 19-4Hkoa baino okerragoa izaten jarraitzen du.

2021ean hazkundera bizkortu egin zen Kontsumo pribatuak susperraldia bultzatu zuen

KONTSUMO PRIBATUAREN ADIERAZLE SINTETIKOA

(%, A/U)



- Etxeetako errenta mantentzeko babesak eta aurrezki handiagoa eskuragarri izateak eutsi diote iazko kontsumo pribatuaren aurrerapenari, eta BPGa hazteko faktore nagusietakoa izan dela berretsi da.
- Euskadin kontsumo pribatua % 5 inguru handitu da aurreko urtean.
- Bilakaera, ordea, ez da Espainia osokoa bezain dinamikoa izan, urteko bigarren seihilekoan batez ere. Seigarren olatuaren intentsitateak eta murrizketek eragina izan dezakete portaera horretan



Eskualdeko kontsumoaren adierazle sintetikoak gastuaren eta errentaren adierazle partzial nagusietatik abiatuta dago eraikia: txikizkako salmentak, ibilgailuen matrikulazioak, zerbitzuen sektoreko jarduera-indizea, kontsumo-salgaien inportazioak, erregaiak, kontsumo-salgaien IPI, Gizarte Segurantzako afiliazioa, erregistratutako langabezia eta etxeetako errenta erreala. Erabilitako metodologia osagai nagusien analisisian oinarritzen da. Iturria: BBVA Research EInen eta iturri nazionalen datuetan oinarrituta.

2021ean hazkundera bizkortu egin zen

Kontsumoa suspertu egin zen, batez ere, aisialdian, jatetxeetan eta garraioan

GASTU PRESENTZIALA TXARTELAREKIN EUSKADIN ETA SEKTOREKA*

(2019KO ASTE BERA =100)




*BBVAk jaulkitako txartelen gastua gehi bezero ez direnek BBVA STn egindako gastua. Azaroa 21. egunera arteko informazioarekin kalkulaturik.
Iturria: BBVA Research BBVA'n oinarrituta.

Maiatzean murrizketak altza zirenean, aisialdiko, jatetxeetako, garraioko eta ostatuetoako gastua bizkortu egin zen. Baina seigarren olatuak eragina izan zuen azaroko eta abenduako transakzioetan; bereziki aisialdian, jatetxeetan eta osasunean. Urtarrilean, murrizketen ondorioz, gastua jaitsi zen, elikaduran eta jatetxeetan izan ezik.


2021ean hazkundea gero eta handiagoa izan zen

Osasun-adierazleak hobetzeak mesede egin zion turismoari

EUSKADIKO GAINERAKO TOKIETAN BIZI DIREN BBVA-KO BEZEROEK EUSKAL PROBINTZIETAN EGINDAKO GASTU PRESENTZIALA (2019KO HILABETE BERA=100)



ESPAINIAKO GAINERAKO TOKIETAN BIZI DIREN BBVA-KO BEZEROEK EUSKAL PROBINTZIETAN EGINDAKO GASTU PRESENTZIALA (2019KO HILABETE BERA=100)




BBVA kreditu- edo zordunketa-txarteekin egindako gastuak.
Iturria: BBVA Research INEko datuetan oinarrituta.

BBVAko euskal bezeroen Euskadiko turismoa normaldu egin zen maiatzetik aurrera, alarma-egoera amaitu eta probintzia artean ibiltzeko murrizketak desagertu zirenean. Estatuko gainerako tokietatik etorritako bezeroena, gainera, nabarmen bizkortu zen Gipuzkoan. Badirudi urtarrilean berriz ere normalizatuko direla fluxu horiek

2021ean hazkundea gero eta handiagoa izan zen


Osasun-adierazleak hobetzeak mesede egin zion turismoari

EUSKADIN BIZI DIREN BBVA-KO BEZEROEN* GASTU PRESENTZIALA HELMUGAKO AUTONOMIA-ERKIDEGOAREN ARABERA (2019KO HILABETE BERA=100)



BBVA kreditu- edo zordunketa-txartelekin egindako gastuak.
Iturria: BBVA Research INEko datuetan oinarrituta.

BESTE AUTONOMIA-ERKIDEGO BATZUETAN BIZI DIREN BBVA-KO BEZEROEN* GASTU PRESENTZIALA EUSKADIN (2019KO HILABETE BERA=100)




Euskaldunek normalizatu egin zuten beste autonomia-erkidego batzuetan egindako gastua maiatzean, barne-mugikortasuneko murrizketak amaitzean; baina atzerriko gastuak oraindik azkoz txikiagoa izaten jarraitzen du. Beste autonomia-erkidego batzuetako bisitarien etorrera ekainetik aurrera normalizatu zen, baina Deltak eta Omicronek aurrerapen hori mugatu egin dute udazkenean.

2022ko lehen hilabeteetan desazelerazioa espero da

Omicron aldaerak eta botila-lepoek eragina dute urtearen hasierako jardueran

BPG-AREN BILAKAERA MICA EREDUAREN ARABERA

(%, T/T, CVEC)



(e) Kalkulua; (p) Aurreikuspena.

Iturria: BBVA Research iturri nazionalen datuetan oinarrituta.

■ EAeko BPGak bere hiru hileko hazkundea desazeleratzea espero da % 0,2 t/t ingurura arte, arrazoi hauen ondorioz:

- osasun-adierazleak okertzea, Euskadin (hainbat murrizketa itzuli dira), Espainian eta EBMren gainerakoan;
- botila-lepoak eta hornikuntza-kateetako etenak;
- eta energien eta lehengaien garestitzea.


■ Edonola ere, urtea hobetzea eta BPGa bizkortzea espero da, 2022an urteko hazkundea % 5,3 izatera iritsi arte.

2022ko lehen hilabeteetan desazelerazioa espero da

Omicronek eta botila-lepoek eragina dute aurreikuspen orokorretan eta industria-jardueran

INDUSTRIA-EKOIZPENAREN INDIZEA

(BATEZ BESTEKO HAZKUNDEA, T/T CVEC, %)



■ 21-1S ■ 21-2S

Azarora arteko datuak aurreikuspenekin osatuta.
Iturria: BBVA Research EInen datuetan oinarrituta.


- Botila-lepoek eragin negatiboa dute industria-ekoizpenean, eta gehiago nabari da iparraldeko autonomia-erkidego batzuetan.
- Euskadiren kasuan, Espainian ikusten denaren kontra, industria-ekoizpenaren indizearen hazkundera 7 hamarreko desazeleratu zen batez beste iazko bigarren seihilekoan.
- Bitarteko ondasunek eta kontsumo-ondasunek azaltzen dute Espainiarekin alderatutako diferentzial negatiboa, ekipo-ondasunen ekoizpenak aurrera egitea lortu badu ere.

2022ko lehen hilabeteetan desazelerazioa espero da

Ekoizpen-kateen etena, ondasunetan batez ere

TURISMOEN MATRIKULAZIOAK

(BATEZ BESTEKO HAZKUNDEA, T/T CVEC, %)




- Era berean, ekoizpen-kateen etena eragina izate ari da autoen merkatuan.
- Turismoen matrikulazioek bilakaera negatiboa izan zuten ia erkidego guztietan urtearen azken zatian.
- Euskadin ere joera bera izan zen, nahiz eta 21-2S aldiko jaitsiera lehen seihilekoko baina arinagoa izan zen
- Gaztela-Mantxa eta Madril izan ziren tasa positiboak izan dituzten erkidego bakarrak, alokairu-enpresen bultzadari esker.
- 2022an salmentak berreskuratzea, murrizketen iraupenaren arabera izango da.

2022ko lehen hilabeteetan desazelerazioa espero da

Erregaien eta lehengaien prezio handiak eragina du esportazio-lehiakortasunean

ONDASUNEN ESPORTAZIOEN UNITATE-BALIOEN INDIZEA AUTONOMIA-ERKIDEGOAREN ARABERA 2021EAN (URTEKO ALDAKETA, %)




- Energiaren eta lehengaien prezioak igotzea produkzio-kostuak eta esportazio-prezioak igoarazten ari da.
- Igoera hori, energia-esportazioek pisu handia duten autonomia-erkidegoetan nabari da batez ere.
- Euskadin salgaien esportazio-prezioak Espainian baino gehiago ari dira bizkortzen. Hori desabantaila da merkataritza-fluxuen zailtasunak amaitzen direnean esportazioak berreskuratzeko.

2022an, Euskadiko BPGa % 5 baino gehiago haziko da

Pandemiaren seigarren olatuak gastua handitzea geldiarazi zuen, baina suspertzea espero da

ATZERRITARRAK: GASTU PRESENTZIALA TXARTELEKIN* (2019=100)




Kreditu- edo zordunketa-txartelekin egindako gastuak BBVA STn.
Iturria: BBVA Research BBVAren datuetan oinarrituta.

Euskadi mugan dagoenez, atzeritarren gastua gehiago suspertu zen udako hilabeteetan, baina murrizketa gehiago ezartzeak eta turismo-denboraldiak abantaila hori desagerrarazi zuten urtearen amaiera aldera. Pandemia kontrolatzeko egindako aurrerapenek eta Europako hazkundeak beste bizkortze bat ekarriko dute 2022an.

2022an, Euskadiko BPGa % 5 baino gehiago haziko da

EAEko biztanleen kontsumoa hobetzen ari da, baina oraindik beste autonomia-erkidego batzuetan baino mantsoago

ESPAINIAKO EGOILIARRAK: GASTU PRESENTZIALA TXARTELEKIN* (2019=100)



Kreditu- edo zordunketa-txartelekin egindako gastuak BBVA STn.
Iturria: BBVA Research BBVAren datuetan oinarrituta.


Euskadin, egoiliarren txartelarekin egindako gastuaren dinamismoa estatu-mailakoa baino txikiagoa izan zen 2021ean, eta 2022aren hasieran ere erritmo berarekin jarraitzen du. 2021ean egoiliarrek txartelarekin eskualdean egin zuten gastua 2019koa baino % 5 handiagoa izan zen, eta Espainian % 20 handiagoa.

2022an, Euskadiko BPGa % 5 baino gehiago haziko da

Etxebizitzen salmenta pandemia aurreko mailetakoa da, NGEU programaren bultzadaren zain


ETXEBIZITZAREN PREZIOA

(% A/U)



ETXEBIZITZEN SALMENTA

(AURTEN ORAIN ARTE METATUTAKOA)




Iturria: BBVA Research MITMAko datuetan oinarrituta.

2021ean, etxebizitzaren salmenta, azarora arte metatutakoa, 2020koa (+% 20,5) eta 2019koa (+% 5,4) baino hobea da. Bestalde, prezioa suspertu egin zen 2021eko lehen hiru hiruhilekoetan. 21-3Hn % 3,3 a/u hazi zen, eta Espainian % 2,6.


2022an, Euskadiko BPGa % 5 baino gehiago haziko da

Euskadiko etxebizitzaren sektoreko jardura bizkortzen ari da, bi urtez moteldu eta gero

OBRA BERRIKO ETXEBIZITZEN BISATUAK
(%, A/U URTE OSOETAN ETA T/T CVEC HIRUHILEKOETAN)



OBRA BERRIKO ETXEBIZITZEN BISATUAK
(AURTEN ORAIN ARTE METATUTAKOA)*




Iturria: BBVA Research MITMAko datuetan oinarrituta.

Etxebizitza berrien eskaintzak portaera hobea izan zuen 2020an. Azarora arte, Euskadiko obra berrien bisatuak 2020ko epe berean eskatutakoak baino ia % 40 gehiago izan ziren, eta 2019koak baino % 20,6 gehiago. Abenduko aurreikuspenean ia % 15eko hiruhileko igoera espero da 21-4Hrako.

2022an, Euskadiko BPGa % 5 baino gehiago haziko da Ondasunen esportazioen hazkunde orokortua

ONDASUNEN ESPORTAZIO NOMINALA

(URTARRILA-AZAROA METATUTAKOA, % A/U)




Parentesi artean sektoreak Euskadiko esportazioen guztizkoan duen pisua adierazten da.
Iturria: BBVA Research Datacomex-en datuetan oinarrituta.

- Ondasunen euskal esportazioak sektore guztietan handitu ziren eta ia guztiak 2019ko mailara iritsi ziren.
- Gehien nabarmentzen direnak erdimanufakturatutakoak eta automobilgintza dira, Espainian baino gehiago hazi baitziren.
- Baina ekipamendu-ondasunak, funtsezkoak euskal esportazioetan, mantsoago egiten dute aurrera. Merkatu guztiek eragin positiboa dute.
- Industriako hornikuntza-arazoak eta edukiontzien eskasia pixkanaka konponduko dira.

Hazkundeak handia izaten jarraituko du 2022an eta 2023an

Metatutako aurrezkiak kontsumoa bizkortzea ekar dezake datozen hiruhilekoetan

PER CAPITA BPG-A ETA BESTE SEKTORE EGOILIAR BATZUEN GORDAILUAK ETA KREDITUAK




- Gastuari ezarritako murrizketak eta ziurgabetasunak aurrezki-maila igo eta familien eta enpresen finantza-posizioa (agregatuan) hobetu du pandemian.
- Per capita BPG handiena duten autonomia-erkidegoek (Katalunia, Madril edo Nafarroa), eta populazio zahartua dutenek gehiago handitu dute aurrezkiaren batez bestekoa krisi honetan, eta beraz, epe laburrera kontsumoa berreskuratzeko aukera handiagoa dute.
- Euskadin efektu hori ez da hain agerikoa, eta baliteke etxebizitzaren merkatuaren bizkortzearengatik izatea.

Hazkundeak handia izaten jarraituko du 2022an eta 2023an

Zerga-bultzadaren lehen seinaleak, agian NGEU programari lotuta

OBRA PUBLIKOAREN LIZITAZIOA

(2019KO EPE BERA = 100)



Iturria: BBVA Research Garraioen, Mugikortasunaren eta Hiri Agendaren Ministerioren datuetan oinarrituta.


- NGEU laguntzen eta neurri berezien iritsierarekin, zenbait autonomia-erkidegotako obra publikoaren lizitazioa bizkortu ahal izan da, baina bizkortzea ez da orokorra, ezta esperotako neurrikoa ere.
- Aurrerapena (2019ko 2. sei hilekoko baino % 50 gehiago inguru Espainia osoan) aurrekontuetako diru-kopuruekin espero zena baino txikiagoa da, eta atzerapenez iritsi denez, 2022an gauzatuko da.
- Euskadin, baliteke obra publikoaren lizitazioa bizkorrago aurrera egiten aritzea.

Hazkundeak handia izaten jarraituko du 2022an eta 2023an

Zerga-bultzadaren lehen seinaleak, agian NGEU programari lotuta

EUROPAKO FUNTSEN BANAKETA 2021EAN

(ESKUALDEKO BPG-AREN %)




- Nahiz eta zertxobait mantso hasi, 2021ean BPGaren % 1aren pareko PRTR funtsak banatu ziren autonomia-erkidegoen artean, baina heterogeneotasun handiarekin eskualdeei dagokienez.
- Madril, Euskadi eta Katalunia dira abenduaren 31ra arte funts gutxien esleitu zaizkien autonomia-erkidegoak.
- 22-1S-ko deialdietarako, berriz, ia 25 mM€ banatuko dira. NGEU funtsak banatzeko lehia-irizpidea, eta seihileko honetako lizitazioen eta dirulaguntzen deialdien arreta garraio jasangarrian, energia-trantsizioan, industrian eta digitalizazioan jartzean, aukera gehiago dute funtsak eta giza kapital gehiago kudeatzeko gaitasun handiagoa duten enpresak dituzten autonomia-erkidegoak.

Hazkundeak handia izaten jarraituko du 2022an eta 2023an

Europako funtsen banaketa eta erabilera, suspertze inklusiboa lortzeko gakoak

MILIOI EURO BAKOITZEKO SORTUTAKO ENPLEGUA ETA BPG-AREN BIDERKATZAILEA 2020AN




- 2014-2020 aldian, FEDER funtsaren bidez, Europarekin batera finantzatutako programek eragin handiagoa dute eroriago dauden eskualdeetan, alde handiarekin eskualdeen artean.
- Hazkunde jasangarria lortzeko inbertsioak efektu handiagoa du hegoaldeko erkidegoetako enpleguan, baina BPGaren gainera eragina handiagoa da iparraldeko hainbat erkidegotan eta Balearretan.
- Inbertsio horien efizientzia hobetzeko zenbatekoak eta ahaleginak oso garrantzitsuak dira NGEU funtsek hazkundeaz izango duten azken eragina ezagutzeko.

Hazkundeak handia izaten jarraituko du 2022an eta 2023an:

Askoz ere anbizio handiagokoa izan zitekeen arren, lan-erreformak ziurtasuna sortzen du

LANGABEZIA-TASA ETA BEHIN-BEHINEKOTASUNA

(2021EKO BATEZ BESTEKOA, %, CVEC)



Iturria: BBVA Research EInen datuetan oinarrituta.


- ERTE prozedurak eta epeak errazteak barne-malgutasuna bultzatzea ekarriko du.
- Negoziazio kolektiboaren estaldura murriztu egin da, baina **enpresa-hitzarmena aplikatzeko lehentasuna mugatzeak doikuntzak zail ditzake asaldura negatiboetan**. Arrisku zertxobait handiagoa sindikatuen presentzia handiagoa duten iparraldeko autonomia-erkidegoetan.
- Trebakuntza-kontratuen **aldeko apustuak harrera ona du**. Baliteke hegoaldean inpaktu handiagoa izatea, populazioa gazteagoa delako eta giza kapitala txikiagoa.
- Behin-behinekotasunaren **gaineko efektua nabarmena izan daiteke**, batez ere hegoaldean eta turismo-sektorearen mendekotasun handiagoa duten autonomia-erkidegoetan, lan-merkatu ezegonkorragoa dute eta.

Arriskuak

Inflazioak goraka darrai, baita mendekoa ere

INFLAZIOA. OROKORRA ETA MENDEKOA

(ABENDUA-21, %, A/U)




- Erregaien eta energiaren prezioak etengabe igotzeak iguera hori aldi baterako dela pentsatzeko aukera ematen du, **baina bigarren txandako efektu batzuk izateko arriskua ere badago.**
- Arriskua kanpo-lehia handia duten autonomia-erkidegoetan da batez ere handia, **adibidez, Aragoi eta Gaztela eta Leonen.** Erkidego horietan inflazio orokorra eta mendekoa bereziki handiak baitira.
- Baina Euskadin, mendeko inflazioaren **bizkortzeak arriskua handi dezake** kanpora begirako prezioan lehiakortasuna galtzearekin aurreratzen delako.

Arriskuak

Inflazioa lan-kostuetara eraman daiteke?

ENPLEGUA ETA LAN-KOSTUAK

(1-3T21, %, A/U)




- Enpresen lan-eskaerak lan-kostuak igo ditu, eta hori dagoeneko nabari da hegoaldeko zenbait eskualdetan, baina eragina ez da oraindik orokorra.
- Enplegua modu berean igo arren, badirudi langabezia-tasa handiena duten autonomia-erkidegoetan kostua gehiago bizkortzen ari dela.
- Behar diren lanpostuak eta NGEU funtsen zerga-bultzadaren ondorioz behar litezkeen postuak betetzeko zailtasunak, hain zuen, **traslazio handiagoa eragin dezakete inflazioaren azken igoeren enpresa-kostuetan, eta horrek lehia areago galtzea ekarriko luke.**

Arriskuak

Espainiako gizartea digitalizatzeko NGEUk duen garrantzia

GAITASUN DIGITALAK 2020: (INKESTA EGIN BAINO HIRU HILABETE LEHENAGO INTERNETERA KONEKTATU ZEN 16 ETA 64 URTEREN ARTEKO POPULAZIOAREN %)



- Espainiako populazioaren gaitasun digitalak hobetu egin ziren 2020an komunikatzeko, bilaketak egiteko eta informazioa aztertzeko gaitasunetan egindako aurrerapenengatik.
- Gaitasun digitalak asko hobetu ziren profil honetako pertsonetan: gizonekoa, 44 urte baino gutxiago, atzerritarra, lehen hezkuntzako ikasketak, bere kontura lanean ari dena, 900-1.600 eurora arteko diru-sarrerak dituen familia eta etxean adingabeak dituen.
- Gomendagarria izango litzateke NGEU funtsen zati bat gaitasun txikiak dituen populazioaren % 34 hori jaistera.
- Madril, Katalunia, eta nolabait, Euskadi abantailarekin abiatuko dira digitalizazioa bultzatzeko bide honetan.

Arriskuak

NGEUK Espainiako gizartea digitalizatzeko duen garrantzia

NGEuren esparruan, Eskumen Digitalen Plan Nazionalak 3.600 milioi euro bideratuko ditu Espainiako biztanleen trebakuntza eta inklusio digitala bultzatzeko. Arlo horretan NGEU baliabideak modu optimoan esleitzeko, hauek oso garrantzitsuak dira:



EZAUGARRI PERTSONALAK

Gaitasun digital txikiagoak dituzten taldeetan arreta handiagoa jartzea; adibidez:



Hezkuntza-maila txikiagoa duten pertsonak



Adineko pertsonak



Atzerritarrak



Emakumeak



GAILU DIGITALAK EDUKITZEA

Etxean gailu elektronikoak edukitzeak (adibidez, ordenagailuak edo tabletak) gaitasun digitalak hobetzen ditu.

Gaitze digitaletako zentroetan gailu horiek erabiltzeko sarbidea erraztea onuragarria izango litzateke.




INGURUNEA

Banda zabala eta kalitate handiko komunikazio-sare eta -zerbitzuak prezio lehiakorretan eskuratzea, landa-eremuetan batez ere.

NGA eremu zuri eta grisetan hobetzeko aukera dago.

2021-2023: BPGaren aurreikuspenak eta Euskadiko lan-merkatua*



* Ehunekoa, urteko batez bestekoak.
Iturria: BBVA Research.

Lege oharra

Dokumentu hau ez da "Inbertsio Gomendioa", Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren merkatu-abusuari ("MAR") buruzko 596/2014 Erregelamenduaren (EB) 3.1 artikuluan (34) eta (35) zehaztutakoaren arabera. Zehazki, dokumentu hau ez da "Inbertsioen Txostena", ezta "Publizitate-komunikazioa" ere, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014/65/EB Zuzentaraua osatzen duen Batzordearen 2016ko apirilaren 25eko 2017/565 Erregelamendu Delegatuaren (EB) 36. artikulua onorioetarako, inbertsio-zerbitzuen enpresen antolamendu-betekizunei eta funtzionamendu-baldintzei dagokienez ("MiFID II").

Irakurleek jakin behar dute dokumentu hau ez dutela inolaz ere oinarri gisa hartu behar inbertsio-erabakiak hartzeko, eta inbertsio-produktuak eskain diezazkieketen pertsonak edo erakundeek legearen eman beharko dietela erabakia hartzeko behar duten informazio guztia.

BBVA Research-eko sailak egindako dokumentu honek dibulgazio-izaera du, eta bere datari buruzko datuak edo iritziak jasotzen ditu, bertan egindakoak edo bidezkoetat edo fidagarritzat jotzen ditugun iturrietan oinarritutakoak, BBVAk egiaztapen independenterik egin gabe. BBVAk, beraz, ez du bermerik eskaintzen, berariaz edo inplizituki, zehaztasunari, osotasunari edo zuzenketari dagokienez.

Dokumentu honen edukia aldeztu aurretik jakinarazi gabe aldatzen da, testuinguru ekonomikoaren edo merkatuaren gorabeheren arabera, adibidez. BBVAk ez du bere gain hartzen eduki hori eguneratzeko edo aldatzeko horiek jakinarazteko inolako konpromisorik.

BBVAk ez du bere gain hartzen inolako erantzukizunik dokumentu hau edo bere edukia erabiltzetik erator daitekeen edozein galera zuzenean edo zeharkakori dagokionez.

Ez agiri hau, ez bere edukia, ez dira finantza-aktibo edo -tresnetan inolako interesik eskuratzeko, desinbertitzeko edo lortzeko eskaintza, gonbidapena edo eskaera, eta ezin dira inolako kontratu, konpromiso edo erabakitarako oinarri izan.

Dokumentu honen edukia jabetza intelektualari buruzko legeriak babesten du. Berariaz debekatuta dago edozein bide edo prozedura erabiliz erreproduzitzea, eraldatzea, banatzea, jendaurrean jakinaraztea, eskura jartzea, erazte, berrerailezea, berriz bidaltzea edo erabiltzea, salbu eta lege baimenduta badago edo BBVAk berariaz baimentzen badu www.bbvarresearch.com webgunean.

Situación País Vasco Zertan den Euskadi

2022